

Babelgo apaletan

SARRERA

Borgesek dio: Unibertsoan (bestelako deituraz, Liburutegian) dauden liburuz betetako galeriak mugagabeak dira eta, beharbada, infinituak. Borgesek Babelgo liburutegia dioen tokian, Baudelairek *basoa* dio, Stendhalek *mosaikoa* dio, Paul Valeryk *itsasoa* dio. Borgesek galeriak dioen tokian, *apalak* diot nik, *apaletan* jartzen direlako liburuak, baina baita literatura *apalenak* ere Babelgo liburutegian daudelako.

Borgesek berak beste toki batean esaten du: gizakiak asmatu dituen tresna guztien artean liburua da harrigarriena; gainerako asmazio guztiak bere gorputzaren luzapenak dira... Liburua bakarrik da imajinazioaren eta memoriaren luzapena.

LEHENDABIZIKO APALEAN,

TXOKOLATE USAINA

“Gizaki askoren destinoak zerikusi handia du gurasoen etxean liburutegi bat zuten ala ez”, zioen Edmondo de Amicis-ek. Gure etxean ez genuen liburutegirik. Liburu solte batzuk zeuden amaren gau mahaitxoan eta armairuan, elizarekin zerikusiak zutenak gehienak. Luteroren erreforma gaitzetsiz

bukatzen zen historia sakratuari buruzko liburu lodikote bat dut gogoan. Ez dakit zergatik eta nola iritsi zen geurera. Azken orrialdeetan, oholtza baten grabatua. Lutero ikusten zen bertan, deabru itxuran, Aita Santuarenganako lotura guztiei uko egiteko pontifize-bulda urratuz.

Auzoan libururen bat ikusten zitzaion bakarra, herriko erretorea zen (maisua, orain ere nagusi den usadioari segituz, ez zuen libururik ukitzen eskolatik kanpo). Apaizaren liburutegira sartu nintzen gutxitan, elizak berak baino errespetu gehiago sortu zidan egurrezko apal beltzetan gordetako larruzko azal ilunak zituzten liburu lodien multzoak.

Zein izan zitekeen halako giro batean jaiotako baten destinoa? Ni haurra nintzenean bazen, nire zorionerako, txokolate marka bat (uste dut *Zahor zela*) barruan ipuin txiki liliputiense batzuk zekartzana. Ia libururik ez zegoen etxe batean jaioa izaki, txokolateari esker ezagutu nituen nik *Caperucita*, *Ali Baba*, *Cenicienta*, *Botadun katua* pertsonaiak... Txokolateari esker ezagutu nuen *Txokolatezko etxetxea* ipuina ere. Mirari bat! Txokolatezko etxe bati buruzko istorio bat txokolatearen usaina zuen ipuin baten bidez emana!

Hatzekin liburua ukitu, orriek duten usain bereizia sentitu, begiak entretenitzen hasi lerroz lerroko bidean aurrera, parke batean paseatzen goazenean bezala, edo itsasora irtendakoan... Halaxe hasi ziren nire lehendabiziko bidaiak. Horixe da, bidaia, liburu baten miraria argitzeko gehien erabili den metafora.

Imajinazio laburreko jendearentzat eginak omen dira bidaia fisikoak. Salgari ez zen sekula deskribatu zituen lurraldeetan egon: liburua imajinazioaren eta memoriaren luzapena da.

Bidaia baten hasiera da liburu bat: badakigu zer utzi dugun atzean, eta, halaber, badakigu zer aurkituko dugun irakurketa bukatzen denean. Ez dakigu, ordea, zer aurkituko dugun liburuan, bost minutu soil igaro dezakeen ekintza aparteko horretan. Liburua zabaldu, eta bertan aurkituko ditugu nabigazioan lagunduko diguten konpasak eta teleskopioak, sextanteak eta mapak.

Baina bidaiatzeko aukera gutxi nituen nire inguruan. Eta denak, gaztelaniaz.

BIGARREN APALEAN
HIZKUNTZA IKUSEZIN BAT DAGO
ORRI ZURI BATEAN

Bidaiatzeko aukera gutxi nituen nire inguruan. Eta gaztelaniaz bidaiatzen nuen beti. Etxean hitz egiten ez zen hizkuntza batean. Nire haurtzaroko Babelek ez zeukan euskararentzat apalik. Hamaika urte bete behar izan nituen jakiteko etxean entzuten nuena bazegoela liburuetan ere; etxean entzuten nuenak bazuela bere tokitxoan Babelgo apaletan.

1949 urtean, eta ez da orduko egoeraren adibide bat besterik, Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu, euskal sinismenaren poema* argitaratu zen. Berriak ez luke garrantzirik, balio literario

apaleko poema-bilduma erlijioso bat baita aipatu liburua. Baina Mitxelenarena da gerra ondoan Euskal Herriko Hegoaldean argitaratutako lehen euskal liburua. Gerra bukatu eta handik hamar urtera, beraz.

Haurretan izan nuen maisua euskalduna zen. Ez nuen euskalduna zenik jakin handik dezentera arte. Den-dena esaten ari zitzaidan Babelen ez zegoela euskararik. Baina den-dena ikusten zuen hizkuntza ikusezina zen euskara. Ikusezina zen munduarentzat, hedabideentzat, baita bertakoentzat ere, baina euskarak ikusi, sentitu eta esan egiten zuen, inork ikusten ez bazuen ere, inork entzuten ez bazuen ere euskarak zioena. Euskal etxeko sukaldean ezkutatutako *topo* bat zen euskara, Kantabria eta Pirinioetako mendietan *topoak* desagertu eta gero ere... Isiltasun behartua kontatzen zuen euskarak, bazterketa, etxeko sukaldetik.

Gerra aurretik argitaratu bazen ere, euskal hurrek huraxe izan zuten ia irakurgai bakarra, klandestino, gerra ondoren. *Xabiartxo* zuen izena. Ezagutzen duzuenek gogoratuko duzue azala. Mutiko osasuntsu bat. Eserita dago, belaunak zabal-zabal dituela eta oinak lotuta. Txapela du buruan; liburu bat eskuetan; abarkak oinetan. Mutikoak eskuetan duen liburuko azalean, beste mutiko osasuntsu bat. Eserita dago, belaunak zabal-zabal dituela eta oinak elkartuta...

Irakurgai bakarra zuten euskal hurrek? Bai eta ez. Azaleko *mise en abîme* horretan infinituraino doa oihartzunen

soka hori. *Xabierto*, euskaldun askoren katona eta doktrina eta *rerum lectio* izan den liburu apal hori Babelgo liburutegiko apaletan dago. Eta gauza jakina da Babelgo liburutegia infinitua dela.

Czeslaw Milosz poeta hil berriak Babelgo liburutegiaren neurri infinituei buruzko hausnarketatzat har dezakegun testu eder bat idatzi zuen orain urte batzuk. Luze samarra da, baina osorik irakurtzea merezi duela uste dut:

“Poeta bazara, garbi ikusiko duzu paperezko orri honetan hodei bat dagoela airean. Hodeirik gabe, ez legoke euririk; euririk gabe, arbolak ez lirateke haziko; eta arbolarik gabe, ez legoke papera egiterik. Hodeia beharrezkoa da papera egon dadin. Hodeirik ez balego, ez legoke paperezko orri hau ere. Beraz, esan dezakegu hodeia eta papera elkar lotuta daudela.

“Are arretatsuago begiratzen badiogu paperezko orri honi, eguzkiaren argia ikusiko dugu bertan. Eguzkiaren argirik gabe, basoa ez litzateke haziko: izatez, ezer ez litzateke haziko. Guk geuk ere ezin dugu eguzkirik gabe hazi. Beraz, badakigu eguzkiaren argia dagoela paperezko orri honetan ere. Papera eta eguzkia, elkar lotuta. Eta begiratzen segitzen badugu, aizkolaria ikusiko dugu bertan, zeinak arbola ebaki baitzuen eta fabrikara eraman arbola, paper bihur zezaten. Eta garia ikusten dugu. Badakigu aizkolaria ezin dela bizi eguneroko ogirik gabe, eta, horregatik, ogia egiteko erabili den garia ere paperezko orri honetan dago. Eta baita aizkolariaren aita eta ama ere. Modu

horretan begiratzen dugunean, konturatzen gara gauza horiek guztiak gabe, honako paperezko orri hau ez litzatekeela existituko.

“Are sakonago begiraturik, geu ere bertan gaudela ikus dezakegu. Ez da zaila horretaz konturatzea, paperezko orri honi begiratzen diogularik, paperezko orri hau gure pertzepzioaren zatia baita. Zure adimena hemen dago eta baita neurea ere. Beraz, esan dezakegu dena hemen dagoela, paperezko orri honetan. Ezin duzu hemen ez dagoen gauza bakar bat ere seinalatu –denbora, espazioa, lurra, euria, mineralak, eguzkia, hodeia, ibaia, beroa—. Dena dago elkar lotuta paperezko orri honetan. Paperezko orri honen existentzia lotuta dago gainerako gauza guztien existentziarekin.”

HIRUGARREN APALA, DEBEKATUTAKO LIBURUENA

Zoritxar batek ekarri zuen nire zoriona, liburuenganako maitasuna. Ama txikitatik gaixo ezagutu banuen ere, nik hamar bat urte nituenean behartu zuen ohera gaixotasunak. Gehiago irakurtzen hasi zen, beti gaztelaniaz, eta herriko liburutegira bidaltzen gintuen liburu bila. Berak irakurtzen zituenetatik niretzat egokiak zitezkeela iruditzen zitzaizkionak gomendatzen zizkidan amak. Hala ezagutu nituen Dickens-en *La pequeña Dorritt* edo Walter Scott-en *Ivanhoe*. Baina

gomendatzen ez zizkidanak pizten zidaten niri arreta. Zergatik ezin nuen *El poder y la gloria* izen deigarriko liburua irakurri?

–Ez da zuretzat modukoa –erantzun zidan Graham Greene-ren liburua irakurri nahi nuela esan nionean.

Ez zen niretzat modukoa! Auskalo zer ondorio aterako zituen hamaika urteko mutiko batek amaren debekutik, auskalo zer ulertuko nuen Mexikoko iraultzan atzera-aurrera zebilen apaiz alkoholizatu eta apostata baten krisi existentzialari buruz, baina hasi eta buka irakurri nuen nobela.

Debekuaren akuilua. Neguko gau luzeetan linterna baten laguntzarekin izarapean liburuak irakurtzeko grina klandestinoa. Neure egiten dut Skvorecky idazle txekiarrak kontatzen duen eszena:

“Arau estu samar eta derrigorrezkoen mende bizi ginen, eta arauak ez betetzea antzinako eran zigortzen zen... Arau horietako bat zera zen: argia, bederatzietan puntuan itzali beharra... Ohean kiribilduta eta tapakiekin burua eta guzti estalita, linterna elektriko bat ateratzen nuen koltxoiaaren azpitik eta gero irakurtzeari eta irakurtzeari eta irakurtzeari ekiten nion atseginez. Halako batean, gau erdia pasatu ondoren askotan, loak hartzen ninduen, atseginez errendituta”.

Eszena bera bizi genuen, erregimen komunista batean Skvorecky-k, erregimen nazional-katoliko batean nik.

Uste dut galarazi dizkidaten liburu gehienak irakurri ditudala, debekatzen dena ezagutzeko grina pizten duen estimulu bat izaten baita sarri debekua (debekua eragiten du nerabeengan drogak ezagutzeko gogoia).

Polizia politikoak, munduko edozein bazterretako etxe batean sartzen denean, liburuak miatzen ditu lehendabizi. Eta liburuak klandestinitatearen xarma hartzen du erregimen totalitarioetan. Pinochet-ek *On Quixote* galarazi zuen Txilen, Cervantesen nobela askatasun pertsonalaren aldarria eta botere konbentzionalaren kritika bat delako.

Erregimen demokratikoetan ere poliziak gauza bera egiten badu –alegia, susmagarrien liburutegiak miatzen baditu ez armen edo drogen bila, baizik ideia arriskutsuen bila–, gizarte horren osasun demokratikoak aje nabarmenak ditu.

LAUGARREN APALEAN, BALDARKERIAREN ARRASTOAK

Trantsizio garaian, hemendik oso hurbil dagoen herri batean, azken ehun urtetan bertako mutiko gehienak hezi zituen kolegio erlijiosoak atea itxi behar izan zituen egoera politiko berriak hartaratu. Fraideak minduta zeuden, uste baitzuten herria esker txarreko portatzen ari zitzaiela, eta zeukaten ozpina herritarrei erakutsi nahirik, ikastetxeko ikasleak bildu, eta kolegio guztian zeuden liburuak botatzen

hasi ziren patiora. Gero, su eman zioten liburu-pilari. Pasarteak kontatu zidan mutilak ez zituen hamar urte besterik. Pare bat hiztegi salbatu zituen mutilak sutatik. Oraindik gordeta dauzka bere etxean.

Berrogeita bost bat urte lehenago, 1933an, zine-kamerak eszena grabatzen ari ziren bitartean, hogeita mila liburutik gora erre zituzten Berlingo plaza batean. Steinbeck, Zola, Hemingway, Einstein, Proust edo London-en obrak suaren gozagarri ziren bitartean, Goebbels-ek esaten zien han bildutako jarraitzaileei: “Gaur gauean oso ondo egiten ari zarete iraganeko lizunkeriok sutara botata. Sinbolismoz betetako ekintza bat da, mundu guztiak ikusiko baitu hil dela izpiritu zaharra. Errautes hauetatik jaiotzen ari da izpiritu berria”. Oso gutxi iraun zuen izpiritu berri hark. Eta ez zigun Einstein-en –eta beste gainerakoen– hitzak gozatzeko aukera guztiz erre: “Sakonki gorrotatzen ditut musika baten harira herrenka doazen uniformatuak: erroreren bategatik daukate zerebroa; berez, bizkarrezurra eta hankak izatea soilik dagokie”.

Babelgo liburutegian ez da ezer baztertzen eta Hitlerren *Mein Kampf* (Nire borroka) eta Goebbels-ek zuzendu zuen *Der Angriff* (Erasoa) aldizkariko aleak ere bertan daude, inoiz iraganeko erroreetatik ikasiko dugulakoan.

**BOSGARREN APALA,
EDO OSO OSTATU ZABALA DA MUNDUA**

Liburu bakarreko, ideia bakarreko, norabide bakarreko garaiak bizi ditugu. Eta bizi dugu horren guztiaren bertsio modernoago bat ere: politikoki zuzenarena.

Timeo hominem unius libri zioten klasikoek. Liburu bakarrekoa ez da azkarra, ez irekia, ez da kultura handikoa, baina bai pitzadurarik gabea. Esaldi zaharrak Stefan Zweigen *Xake nobela* ekartzen dit gogora. Gestapok bahitutako gizajo bat da bertako protagonista. Bahituak denbora asko darama ziega batean, inor ikusi gabe, inorekin hitz egin gabe. Hainbat hilabeteren buruan, Gestapokoek itaunketa batera deitu diote eta...

“Bat-batean nire begirada tinko gelditu zen zerbaiti itsatsita. Gestapokoen longainetako batean albo-patrika zertxobait hanpaturik zegoela aurkitu nuen. Hurbildu nintzaion, eta hanpaduraren forma karratuari antz eman niola iruditu zitzaidan. Zera zeukan bere baitan patrika handi hark: LIBURU bat. Lau hilabetez eskuetan liburu bakar bat eduki gabe nengoen, liburu baten ideia hutsak (...) zerbait hordigarria eta aldi berean sorgarria zeukan (...). Agian lortu egingo duk liburuaren jabe egitea, eta ziegan ezkutatu agian, eta gero irakurri, irakurri, azkenik beste behin ere irakurri!”.

Aise asmatuko duzue istorioaren jarraipena: bahituak liburua lapurtzea lortuko du. Xake-liburu bat da, protagonistak ez du xakea ezagutzen. Baina ordutik, ez du xake liburua beste deus izango ziegako egunen entretenigarri; xakeak eta xakeak eta xakeak beste deusek ez dio arinduko bakardadea; xakea du obsesio bakar, erotzeraino gaixotuko du xakeak...

Babelgo apalategiak, ordea, azkenik gabeak dira, infinituak. Handia da, azkenik gabea, bertan dagoen aukera. Aukerak dituenen izan daiteke bat aske. Askatasunik ez da existitzen, ados, baina askeak bagina bezala bizitzen ahalegindu behar genukeela uste dut. Babelgo apaletan daude pentsamendu bakarra nahi luketen liburuak, baina, halaber, pentsamendu bakarraren aurkako antidotoa eta sinboloa da Babelgo liburutegia. Diferentziaren eta ugaritasunaren eta askatasunaren jauregia: Biblian Jainkoaren zigorra balitz bezala ageri bada ere, nik sekulako bedeinkapentzat daukat.

**SEIGARREN APALA,
EZERTARAKO BALIO EZ ARREN,
BEREBIZIKO GARRANTZIA DUTEN KONTUENA.**

Zertarako balio du liburu batek? Funtzionaltasunaren parametroetatik begiratuta, whisky botilatxoa edo arma bat gordetzeko. David Millar txirrindulariak liburu batean gorde zituen EPO dopinaren frogak, zaborretara bota ordez: lotsa

sentitu nahi omen zuen haiei begiratzean. Liburu mardul bat ona izan daiteke hankaren bat hautsi zaion oheari edo aulkiari eusteko. Ez dago liburua apaingarri gisa baliatuko ez duen dekoratzailerik. Askorik irakurtzen ez duen nire adiskide bat liburu bat eskuetan duela agertzen da hitzorduetara zigarroa erretzeari utzi zionetik.

Fama da oso liburutegi hona zeukatela Urdazubin, Axular, euskarak eman duen idazle handiena jaio zen herrian. 1840 urtean Fabre izeneko bidaiari bat joan zen herrira liburutegiagatik galdetzera.

“Ez dago liburutegirik –esan zioten herrikoek, liburu gehienak zaldien azpitarako erabili genituen”.

“Zergatik diozu gehienak?”.

“Arrotz batzuek erosi zituztelako balio zutenak”.

Pragmatismoa izan dugu euskaldunok harroen erakutsi dugun ezaugarritako bat. Gogoan dut txikitako eszena bat. Auzoko neska koskor bat zerbait irakurtzen ari da etxeko atarian. Halako batean, amak deitu egin dio eta zertan ari den galdetu. Neska koskorrak irakurgaia ezkutatu du. Beranduegi, ordea. Amak ipuina edo dena delakoa kendu dio brastakoan. Ea agindutako lan guztiak eginak dituen, ea ohea egin duen, ea katilua garbitu duen, ea pijama jaso duen. Neskak baietz eta baietz eta baietz. Hala ere, amak lau puska egin du neska

koskorraren ipuina. Gero, besotik oraturik, etxera eman du alaba, esaten diolarik:

–Mugi hadi, alferrik badarik ere! (baike!)

Ikuspegi funtzional batetik begiraturik, errentagarritasun ekonomikoa lege ezinbestekoa duen batek nekez onartuko du gutxi saltzen den liburu bat, nekez ulertuko du gutxi saldutako liburu asko gizartearen legamia izan direla eta direla. Baina Babelen, ekonomia edo fama ez dira arrakastaren neurri. Mosaiko bat da Babel, pieza infinituz osaturiko liburutegi bat. Nork, bertan erreparatzen badu, ukatuko dio guretzat duen garrantzia *Xabiartxo* liburuari?

Geu izatea da Babelek –edo, nahiago baduzue, literatura unibertsalak– eskatzen diguna, geure ahots propioa, identifikagarria anplifikatzea. Ez da behar bezala aztertu European gertatzen ari den bitxi itxurako baina guztiz ulergarria den fenomeno gero eta ugariago hori: metropolikoak ez diren ahotsak, kolonietan-eta jaioenak, nagusitzen ari dira panorama literarioan: hinduak-eta mundu anglosaxoian, arabiarrek-eta Frantzian, turkiarrak-eta Alemanian...

ZAZPIGARREN APALA:

XARMA, GORDEAN

Orain bost bat urte, Urgull mendian txango egiteko aukera baliatu nuen igande-goiz lasai bat. Eguzkia bere ederrenean

zegoen. Gainerakoan, egunak ez zuen niretzat eguzkiarenaz aparteko beste askorik izango, baldin ikusi ez banu hunkigarria gertatu zitzaidan eszena bat. Lau agure, edadean sartuak, eserita zeuden aurrez aurre jarritako bi egurrezko bankuetan. Agureetako batek liburu bat zuen eskuan, eta liburua irakurtzen ari zitzaien beste hiruei. Lasai eta inolako dardararik gabeko ahots eder batez irakurtzen zuen agureak, eta beste hiruek isiltasun erlijioso halako batez jarraitzen zuten irakurketa. Beste hiruek ikusmen arazoak izango zituztela pasatu zitzaidan burutik. Zer irakurtzen ari zitzaien jakin nahi nuen arren, ez nuen ezer entzuten. Hurbiltzekotan egon nintzen, baina, handik pixka batera, alde egin nuen handik, ez baintuen molestatu nahi izan.

Ez dut damu agureei eta agureek zuten irakurgaiari buruz ezer ez galdetu izana: halako eszenek, agerian baino, gordean dute xarma.

Iragan udaberrian, Biescas-eko inguruetan nenbilela, adiskide batzuekin topo egin, eta ni idazle nintzela zekitenez, bidaia bat proposatu zidaten Ainiellera, Julio Llamazares-ek hain gordin eta hain maitasun handiz deskribatu zuen herri abandonatura. Pista batetik gora egin eta gero, mendibide lokaztu baten gora egin behar izan genuen bi bat orduz. Ia bi mila metro inguruko bizkarño batera heldu ginen. Bizkarñotik begiratuta gure oinetan ikusi genuenak –Ainielle herri abandonatuak– harrapatu gintuen. Laino artetik iragazten zen arguzki-argi doiak –*Lluvia amarilla* deitu zion

Llamazaresek— halako kolore sepia bat —iraganarena— ematen zion Ainielleri: zeru hurbilak beregana erakartzen zuen Ainielle, argiak erakartzen zuen, urre zaharraren koloreko iraganak erakartzen zuen, nostalgiak erakartzen zuen. Ezkerte zurien maindirepean zeuden inguruko arbolak. Baita herri erdi eroriaren bihotz-bihotzetik —hondakinetatik— jaiotako arbolak ere...

Halako itxura espektral bat zuen herriak.

Errespetuzko isiltasun ia erabatekoan hasi ginen herrirantz, harik eta, Ainielletik oso hurbil, ur biziko erreka batekin topo egin genuen arte. Errekak ez zekarren ur askorik, aise pasa gintezkeen harri batetik bestera salto eginez. Ez genuen, ordea, aurrera jo, ez genuen erreka igaro, ez ginen Ainiellen sartu.

Inork ezer esan ez bagenuen ere, badakit ez genuela Ainiellek liburuan daukan lilura zapuztu nahi.

Berriro ere, xarma gordean.

Orain urte batzuk, udako gaugiro eder batez lagunarteko afari batean geundela, emakume adiskide batek Manuel Larramendiren *El imposible vencido* gramatikaren lehen edizioa zeukala esan zidan. Balio handiko pitxi bibliografiko bat, beraz. Liburuaren nondik norakoaz galdetu nion, xehetasun bibliografiko interesgarri batzuen esperantzan. Ustekabean,

ordea, gerrako istorio eder bat entzun nuen, nire bibliofiliak espero zituen zehaztapen tekniko eta lehorren ordeaz.

Irabazian irten nintzen.

Espainiako gerraren erdi-erdian, soldadu talde batek etxe tzar erori bat hartu zuen gaueko hotz gordinetik babesteko. Nire adiskidearen aitak, ohantzea ahalik erosoena non osatuko zebilela, liburu batzuk ikusi zituen bazter batean. Linterna baten argi doiarekin begiratu zituen banan-banan, eta interesatzen zitzaizkionak apartatzen hasi zen: Espainiako historia, otoitz liburu bat, biografiaren bat... Tartean, baita Larramendiren gramatika ere, baina ez liburuaren balio bibliografikoaz ohartu zelako, lubakiz lubaki nahikoa urri entzuten zuen euskara hauspotzeko baino. Biharamun goizean, etxe tzarretik alde egin zutenean, gure gizonak sei bat liburu zeramatzan motxilan, tartean andoaindarraren gramatika, Espainiako historia eta otoitz liburu bat.

Ipuin eder baterako abiapuntua: motxilako zein trepetatik utzi ote zituen bazter, bilatutako liburuei tokia egiteko? Janariren bat, arropa, armaren bat?

Nire galderak ez du erantzunik, gure gizona orain gutxi hil baitzen, eta pasadizo haren xarma gordean geratu da Babelgo liburutegiko apaletako batean.

Mila esker